

«Arloa»

1

2018/06/26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 26/06/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Zubia Atxaga
Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko ekainaren 26an, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri María Purificación Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 26 de junio de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste María Purificación Regidor Varela.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2018ko maiatzaren 22an egindako ohiko bilkurako eta ezohiko bilkurako aktak onartu dira.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1.- Hartutako erabakiak.

2018ko ekainaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 12/2018 kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

2.2.- Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1. Epaitegiaren epaia.

Jakinarazi da Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1. Epaitegiak epaia eman zuela ekainaren 14an, eta bertan onartzen zuela Estatuko Administrazio Orokorrak 2017. urtean Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzen oinarrien aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekursoa.

Epai hori emateko Epaitegiaren arrazoiak udal zerbitzu juridikoekin aztertu ondoren, erabaki da gora-jotzeko errekursoa aurkeztea EAEko Auzitegi Nagusiari.

2.3.- Erakunde adierazpena.

Bozeramaleen Juntak, gaur, 18:00etan, egindako bileran aho batez onartu du ondorengo erakunde adierazpena:

ESKORIATZAKO UDALAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA LA MANDAKO” KIDEAK BEHIN-BEHINEAN ASKE UZTEKO NAFARROAKO ENTZUTEGIAREN AUTO LOTSAGARRIARI BURUZ.

Eskoriatzako Udalbatzak erabateko desadostasuna adierazpen du Nafarroako Auzitegiak emandako autoarekin, eta instituzio zein herritarren haserre eta suminarekin bat egiten du. Lehenik eta behin, gure elkartasuna adierazi nahi diegu biktimari eta senitartekoei. Eta era berean, gure haserrea azaldu nahi dugu, emakumearen oinarrizko eskubideak bermatzen ez dituen autoaren aurrean, emakumeak babesgabe uzten dituen autoa. Udalbatza honek berdintasunaren alde lan egiten jarraituko du.”

Eskoriatzan, 2018ko ekainaren 26an

3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENDUAREN ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEAN ELKARRI INFORMAZIOA EMATEKO SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN E-I ERANSKINA ONARTZEA ETA FORMALIZATZEA.

2018/06/26
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
2

2014ko maiatzaren 15ean, Udal honek lankidetza hitzarmena sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin elkarri informazioa emateko.

Indarrean dauden ordenantza fiskaletan familia ugarientzat jasotzen diren hobariak direla-eta, horien onuradunek baldintza ekonomikoak betetzen dituztela egiaztatu beharra du udal honek.

Informazio hori eskuratu ahal izateko, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean elkarri informazioa emateko sinatutako lankidetza hitzarmenaren eranskinetako "diru laguntzak eta hobariak udal zerga, tasa eta prezio publikoetan" E-1 eranskina formalizatzea.

4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoitztua egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobraatu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA			ZERGATIA
001/2016/01/977	144,35	FERREIRA DE ACEBEDO MANUEL	2015.	URTEAN SS1795BC IBILGAILUAREN BEHIN BETIKO BAJA	
049/2015/6094451	613,14	GALDOS IZTUETA CARMEN	E697/2015. OHZ errekargua		
049/2015/6093946	615,6	INMOBILIARIA KUATRUENA	E699/2015. OHZ errekargua		

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO 13. ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 13. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

5 zinegotzi abstentuta (IRABAZIKO 1 eta EH BILDUKO 4), eta gainerako 5 zinegotziek alde bozkututa (EAJ/PNV-ko 4 eta EEE-ko 1), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 13. expedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.210.153.20.01 2018	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOL	20.000,00	20.000,00	40.000,00
1 0400.422.337.20.01 2018	DIRU LAGUNTZA:IKERKETA NERABEEN AISIALDI	0,00	6.376,00	6.376,00
1 0200.227.920.00.39 2018	D.B.ERREGELEMENDUARI EGOK.ZERBITZUA	0,00	12.100,00	12.100,00
1 0100.622.933.00.02 2018	SANTA ANA 19 ERAIKUNTA.IGO GAILUA	0,00	50.400,00	50.400,00
1 0100.601.165.00.01 2018	ARGITERIA PUBLIKOA	64.101,16	163.100,00	227.201,16

1 0100.601.454.00.02 2018	INBERTSIOAK:ELIZATEAK	44.000,00	21.026,29	65.026,29
1 0100.622.342.10.01 2018	PILOTALEKUA	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0100.603.153.20.05 2018	BERRURBANIZAZIOAK	20.000,00	10.000,00	30.000,00
1 0100.601.165.00.10 2018	BIDEGORRI AINGERU GUARDA KUATRUENA:ARGIT	0,00	22.593,42	22.593,42
1 0100.603.153.30.04 2018	HIRI ALTZARIAK	18.059,00	20.000,00	38.059,00
1 0100.601.171.00.11 2018	TORREBASO PARKEA.KOMUN PUBLIKOAK	0,00	24.200,00	24.200,00
1 0400.226.335.00.08 2018	EKINTZAK:EUSKERA	30.000,00	5.000,00	35.000,00
1 0400.421.335.10.01 2018	APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	57.352,07	8.777,23	66.129,30
1 0100.227.454.00.31 2018	ELIZATEETAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA	17.000,00	8.000,00	25.000,00
1 0200.227.920.00.07 2018	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ADM.OROK	7.300,00	5.000,00	12.300,00
1 0100.720.441.10.01 2018	AUTOBUS GELTOKIA:TORREBASO	0,00	40.162,10	40.162,10
	GUZTIRA	277.812,23	422.735,04	700.547,27

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2018	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	422.735,04

	FINANTZAKETA GUZTIRA	422.735,04

Bigarrena.— Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta expediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

BOTO AZALPENA:

Josu Ezkurdiak partida ekonomikoki esanguratsuenak handitzeko edo sortzeko izandako arrazoia azaldu ditu.

Horri buruz esandakoak ondoren jasotzen dira laburtuta:

Aitor Zubizarretak galdu du zertarako balio duten aurrekontuak; hasiera batean horiekin zer egin nahi den aurreikusten dela, eta, gero, eztabaideatzen eta onartzen direnean erabakiak hartzen direla aurreko urteko hasierako aurrekontuko partidak onartu nahi direnekin alderatuz, eta alderaketa horretan ez direla kontuan hartzen urtean zehar egindako aldaketak, horiek izan arren behin betiko aurrekontua adierazten dutenak; hau da, eztabaideatzen denean ez dela eztabaideatzen benetan egindakoari buruz. Hau ere esan du: 6 hilabete pasa dira, eta oker ez bagaude, 500.000 euro inbertitu dira kreditu aldaketa bidez, eta horrek esan nahi du aurrekontuaren ehuneko oso handi bat aldatu egin dela 6 hilabete horietan. Gu horregatik abstenituko gara, eta baita ere uste dugulako, egon daitezkeen ezusteak gorabehera, gerakinaren kargura egin nahi diren jarduera guzti horiek aurrez eztabaideatu daitezkeela. Ikusirik inbertsioen atalerako 250.000 euro inguruko kreditua duen aurrekontutik abiatzen garela, eta aldaketa bidez 500.000 euro erabili direla, nola egin genuen aurrekontua? Eta, soilik obretarako? Ezin zitekeen beste zerbaitetarako erabili horri buruzko eztabaidea izan bagenu bere garaian? Horregatik abstenituko da gure taldea. Eta honekin amaitzen dut: zertarako balio du aurrekontuak?

Josu Ezkurdia: aurrekontuek, alde batetik, herria mugitzeko balio dute; eta, bestetik, edozein erakunde publiko, legez, horiek onartzera behartuta dago. Aurrekontuak nola planteatzen ditugun galderari dagokionez, urte amaieran diru sarrera eta gastu finkoen aurreikuspena egiteko eskatzen diegu zerbitzu teknikoei, eta gastuak sarreren aurreikuspenei egokitzeten saiatzen gara. Eta gero, beste edozein erakunde publikotan egiten den moduan, gerakinik baldin badago, urtean zehar sortzen diren behar berria erantzuten saiatzen gara gerakin horren kargura.

Rafak galdu du ea baliabideak gerakinak datozen.

Galdera argitura, Josuk erantzun dio aldaketa honetan, zehazki, baietz, gerakinak datoza.

Rafa Bernal: orduan, 5.000.000 euro inguruko aurrekontua dugu, gerakinak % 10 bat gehitu zaiona, eta zenbateko garantzitsua da. Noiz sortu zen gerakin hori erabiltzeko ideia?

Josu Ezkurdia: hemen agertzen diren proiektu guztiak eta bakoitza, eta ondorioz, partidak, hainbat batzordetan landu eta planteatu dira.

Rafa Bernal: baina, horrek aurrekontuan bertan aurreikusitako baino diru gehiago suposatzen du inbertsioetan. Sortzen zaidan zalantza da aurrekontua eztabaidatzetan ari garenean dirudiela ez dagoela dirurik, eta hor aritzen garela pentsatzen eta eztabaidatzetan zer sartu daitekeen eta zer ez, eta gero, badirudi "aparteko ordainsaria" datorrela, "gain aurrekontu" moduko bat, eta aparteko ordainsari hori aurrekontua tramitatzetan dugunean proiekturei buruz hitz egiten edo eztabaidatzetan hasteko dugun diruaren baino ehuneko ehun eta piku gehiago da. Horregatik esaten dut niri gustatuko litzaidakeela jakitea noiz hasten den hori aztertzen, hau da, aurrekontua lantzen hasi ginenean, iraila edo urria aldera, hori denoi kontuan hartuta ote zegoen. Nik sentsazioa dut hemen badirela aurreikusigabeak ez diren hainbat gauza, bazirela plano-egitasmo antzekoren batean. Horregatik galdetzen dut ea noiz hasten den gastu horietarako gerakina gastatzea pentsatzen, urtarilean, otsailean, ekainean edo aurrekontuaz hitz egiten hasten garenean.

Josu Ezkurdia: uste dut bi kontu egon direla. Lehenengoa da komentatzea guretzat berri ona dela dirua inbertsioetan gastatu ahal izatea, eta ez soilik gastu arruntean. Eta aurretik joan bedi hori, milioi erdi ez, hobe milioi bat euro gastatu ahal izango bagenu Eskoriatzarako. Guk beti esan dugu inbertsioak eta diru laguntzetzarako eta jardueretzarako dirua direla herrintza egiten dutenak. Hori, alde batetik, eta, bestetik, galdu duzu noiz sortu zen hori. Ba, egoeraren arabera, adibidez, Torrebasoko komun publikoena orain dela bi hilabete, eta argiteria publikorako diruarena, egindako ikuskaritza baten ondoren, eta horiek garrantzitsuenak esatearren; gainerakoak, dagozkion batzorde bakoitzean aztertzen eta onartzen joan ziren. Hau da, beharra ikusi denean eta zerbait egiteko aukera ikusi... ba, planteatu egin da.

Rafa Bernalek berriz dio sentsazioa duela aurrekontua eztabaidatzeko momentuan dirudiela ez dagoela dirurik proiektu batuetarako, eta gero, baietz dirudiela, eta horren aurrean eskatzen du datorren aurrekontuan onartzen ez diren proposamenak ez daitezela izan dirurik ez dagoen aitzakiarekin.

Josu Ezkurdia erantzun dio hemen garrantzitsuena ez dela dirua, baizik eta projektua, eta bere taldea beti dagoela prest eta irekita intereseko proiektuak negoziatzeko eta eztabaidatzeko.

Aitor Zubizarretak berriz ere aipatu du aurrekontuek duten balio erlatiboa. Planteatzen du aurrekontuak kitatzerakoan eta gerakina erabiltzen hasi, aurrekontua onartzekoan baliabide faltarengatik jaso ez ziren proiektu guztiak berreskuratu daitezkeela.

Josu Ezkurdia berriz dio hitz egiteko eta negoziatzeko erabat prest daudela, eta berez, teknikariekin adosten direla hasierako aurrekontuan sartzen ez diren, baina, gero gerakinaren kargura sartzen diren proposamenak.

Alkateak galdu du ea atzera bota den aurrekontua onartu ondoren planteatutako proposamenik.

Rafa Bernalek erantzun dio bera aurrekontuak eztabaidatzeko garaian proposamenak egitera mugatu dela, eta amaitzeako gogorarazi du eztabaida aldaketaren diru zenbatekoarenengatik hasi dela.

6.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO BAIMENA BERRESTEA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ABDELHAK MAHMOUDI eta CHAKIB GDIR jaunei gizarte larrialdieta rako etxebizitzak 2018ko ekainaren 7an formalizatutako kontratuak jasotako baldintzetan aldi baterako erabiltzeko emandako behin-behineko baimena berrestea.

7.- IRUÑA-VELEIA KASUA DELA-ETA, ESKORIATZAKO EH BILDUK ESKATUTA AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Hitza eman ondoren, onar dadin bere taldeak udalbatzarrera ekartzen duen mozioa irakurri du Aitor Zubizarretak. Hauxe, hitzez hitz:

ESKORIATZAKO EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Iruña-Veleia auzia dela eta, Eskoriatzako Udal Batzak honako hau adierazten du:

* *Aipatu auzia bederatzi urtez egon da instrukzio fasean, Euskadin irekita dagoen auzi judizial zaharrena delarik. Bertan inplikatu gisa gure herritarra den Oscar Escribano, aurkitzen da.*

* *Eskoriatzako Udal Batzak bere kezka agertzeaz gain eta giza arrazoiengatik hau eskatzen du:*

1. *Auzia lehen bai lehen argitu dadila.*
2. *Auzia egoki argitua izan dadin egin daitezela, erakunde edota arkeologo independienteak erabiliz, egin beharreko frogak zientifiko guztiak. Horrela, soilik, benetako justizia berma daiteke.*
3. *Eskoriatzako Udal Batzak bat egiten du Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko hainbat euskal herriarrek egin duten manifestuan eskatzen denarekin:*
 - *piezen lagin bat Arkeometrian adituak diren Europako laborategietan aztertzea. Gure ustez, hiru laborategi ezberdinetan egin beharko lirateke analisiak, kasu berezietako protokolo zorrotzak ezarriz.*
 - *parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek indusketa kontrolatuak egin ditzatela Lurmenek grafitoen agerkundatzat seinalaturiko lekuen ingurueta.*
4. *Akordio honen berri Arabako Foru Aldundiari ematea*

5 zinegotzi abstenituta (EEE-ko 1 eta EAJ/PNV-ko 5) eta gainerako 5 zinegotziek alde bozkatuta (IRABAZIKO 1 eta EH BILDUKO 4), mozioa onartu da.

BOTO AZALPENA:

**2018/06/26
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario**
8

Josu Ezkurdiak esan du ulertzen duela gai honen inguruan dagoen kezka edo beldurra, baina, gure herriko altxorretako batekin, euskararekin, lotura estua duelako eta horri buruz informazio oso gutxi dagoelako, eta ondorioz, zalantza asko, abstentu egingo direla. Gainera, esan du, ez dutenez nahi gaia oztopatzea ezezko bozkatuta, hori ere abstentzeko arrazoia dela, mozioa onartu dadin eta aurrera egin dezan.

Rafa Bernal mozioaren alde agertu da, eta esan du azken finean zientzia arloko zalantzak argitzea eskatzen dela dagozkion azterketak eta probak eginda, bere ustez logikoa dena, eta ez duela ulertzen zergatik ez zen horrelakorik egin hasiera batetik, gaur egungo egoerara iritsi gabe.

8.- GALDE-ESKEAK.

8.1.- Aitor Zubizarretak “Aquarius” itsasontziak erreskatatutako errefuxiatuetatik bederatzi Euskal Herrian hartuko direla esan ondoren, galdu du ea Udalak inolako komunikazio edo eskaera ofizialik izan duen.

Erantzun zaio ez dela inolako eskaerarik egon, errefuxiatuak hartzeko Gurutze Gorriari lagatako etxebizitzan 2 familia bizi direla, eta eskaririk ez egotearen arrazoia hori izan daitekeela.

8.2.- Herriko jaiak direla-eta antolatutako ekitaldietara gonbidapena.

Alkateak jakinarazi du bihar, 18:00etan, ikurrinari omenaldi bat egingo zaiola, eta 19:00etan jaietako txupinazoa izango dela. Bertaratutako guztiak gonbidatu ditu ekitaldi horietara.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesión ordinaria y extraordinaria celebradas en fecha 22 de mayo de 2018.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

2.1.- Resoluciones adoptadas.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 20 de junio de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta del acuerdo por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos Nº12/2018.

2.2.- Sentencia del Juzgado de lo Contencioso Administrativo n.º 1 de San Sebastián.

Se informa que el Juzgado de lo Contencioso Administrativo n.º 1 de San Sebastián dictó sentencia con fecha 14 de junio estimando el recurso contencioso administrativo interpuesto por la Administración General del Estado contra la Bases de concesión subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollaron en Eskoriatza en 2017.

Contrastado con los servicios jurídicos del ayuntamiento las razones en la que se fundamenta el Juzgado para dictar dicha sentencia, se ha acordado recurrir en apelación la misma ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

2.3. Declaración Institucional

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada a las 18:00 horas del día de hoy, ha aprobado por unanimidad la siguiente declaración institucional:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA ANTE EL OFENSIVO AUTO DE LA AUDIENCIA DE NAVARRA DE DECRETAR LIBERTAD PROVISIONAL PARA LOS MIEMBROS DE “LA MANADA”

El Ayuntamiento de Eskoriatza en Pleno muestra su total desacuerdo con el auto de la Audiencia de Navarra, y se une al malestar e indignación que dicho auto ha provocado en las instituciones y en la sociedad en general. Queremos mostrar nuestra solidaridad con la víctima y sus familiares, y del mismo modo mostrar nuestra indignación ante una actuación judicial que deja en indefensión a la mujer, incapaz de proteger y garantizar nuestros derechos. El Pleno Municipal reitera su compromiso de seguir trabajando firmemente por la igualdad y en defensa de los derechos de la mujer.

En Eskoriatza, a 26 de junio de 2018

**2018/06/26
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
10**

3.- APROBACIÓN y FORMALIZACIÓN DEL ANEXO E-I DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE CESIÓN RECÍPROCA DE INFORMACIÓN SUSCRITO CON EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.

Con fecha 15 de mayo de 2014, este Ayuntamiento y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa suscribieron un convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información.

Con motivo de las bonificaciones que en las vigentes ordenanzas fiscales se contemplan para la familiar numerosas, este Ayuntamiento necesita comprobar el cumplimiento de los requisitos económicos de las personas beneficiarias de las mismas.

Con la finalidad de acceder a dicha información, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Formalizar el Anexo E-I “Subvenciones y bonificaciones en impuestos , tasas, precios públicos municipales” que forma parte del catálogo de anexos del Convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información suscrito entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se resumen:

CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
001/2016/01/977	144,35	FERREIRA DE ACEBEDO MANUEL	BAJA DEFINITIVA EL AÑO 2015 DEL VEHÍCULO SS1795BC
049/2015/6094451	613,14	GALDOS IZTUETA CARMEN	E697/2015. Recargo IBI
049/2015/6093946	615,6	INMOBILIARIA KUATRUENA	E699/2015. Recargo IBI

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

5.- EXPEDIENTE N.º 13 DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº13, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaría-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta.

Con la abstención del 5 concejales (1 de IRABAZI y 4 de EH BILDU) y el voto favorable de los 5 concejales restantes (1 EEE y 4 de EAJ-PNV) , el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 13 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.210.153.20.01 2018	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOL	20.000,00	20.000,00	40.000,00
1 0400.422.337.20.01 2018	DIRU LAGUNTZA:IKERKETA NERABEEN AISIALDI	0,00	6.376,00	6.376,00
1 0200.227.920.00.39 2018	D.B.ERREGELEMENDUARI EGOK.ZERBITZUA	0,00	12.100,00	12.100,00
1 0100.622.933.00.02 2018	SANTA ANA 19 ERAIKUNTA.IGOGAILUA	0,00	50.400,00	50.400,00
1 0100.601.165.00.01 2018	ARGITERIA PUBLIKOA	64.101,16	163.100,00	227.201,16

1 0100.601.454.00.02 2018	INBERTSIOAK:ELIZATEAK	44.000,00	21.026,29	65.026,29
1 0100.622.342.10.01 2018	PILOTALEKUA	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0100.603.153.20.05 2018	BERRURBANIZAZIOAK	20.000,00	10.000,00	30.000,00
1 0100.601.165.00.10 2018	BIDEGORRI AINGERU GUARDA KUATRUENA:ARGIT	0,00	22.593,42	22.593,42
1 0100.603.153.30.04 2018	HIRI ALTZARIAK	18.059,00	20.000,00	38.059,00
1 0100.601.171.00.11 2018	TORREBASO PARKEA.KOMUN PUBLIKOAK	0,00	24.200,00	24.200,00
1 0400.226.335.00.08 2018	EKINTZAK:EUSKERA	30.000,00	5.000,00	35.000,00
1 0400.421.335.10.01 2018	APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	57.352,07	8.777,23	66.129,30
1 0100.227.454.00.31 2018	ELIZATEETAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA	17.000,00	8.000,00	25.000,00
1 0200.227.920.00.07 2018	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ADM.OROK	7.300,00	5.000,00	12.300,00
1 0100.720.441.10.01 2018	AUTOBUS GELTOKIA:TORREBASO	0,00	40.162,10	40.162,10
	GUZTIRA	277.812,23	422.735,04	700.547,27

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2018	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	422.735,04

	FINANTZAKETA GUZTIRA	422.735,04

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

EXPLICACIÓN DE VOTO:

Josu Ezkurria explica las razones que motivan el incremento o creación de las partidas más significativas económicoamente.

Se producen las intervenciones que a modo de resumen se reflejan a continuación:

Aitor Zubizarreta dice preguntarse para qué valen los presupuestos, que en principio con ellos se hace una previsión de lo que se pretende llevar a cabo, que cuando se debaten y se aprueban se toman las decisiones comparando las partidas del presupuesto inicial del año anterior con el que se pretende aprobar, y que no se tienen en cuenta en dicha comparación las modificaciones que se han podido realizar a lo largo del año y que son las que representan el presupuesto definitivo, esto es, que cuando se debate no se debate sobre lo realmente hecho. Añade: Han pasado 6 meses y, si no estamos equivocados, se han invertido vía modificación de créditos cerca de 500.000 euros; y ello significa que un porcentaje muy alto del presupuesto ha sido modificado en esos 6 meses. Nuestra abstención se debe a ello, y al hecho también de que consideramos que, sin perjuicio de los imprevistos que pueden haber, se pueden debatir con antelación todas esas actuaciones que se pretende llevar a cabo con cargo al remanente. Visto que se parte de un presupuesto con un crédito del capítulo de inversiones de aproximados 250.00 euros, y que vía modificación se han empleado 500.000 euros, ¿cómo hicimos el presupuesto? Y ¿sólo para obras? ¿No se podía haber utilizado a otros fines si se hubiera debatido sobre ello en su momento? Es por eso la abstención de nuestro grupo. Y termino con esto: ¿para qué sirve el presupuesto?

Josu Ezkurria: Los presupuestos, por un lado, sirven para mover el pueblo, y por otro lado, cualquier entidad pública está obligada legalmente a aprobarlos. En cuanto a ¿cómo planteamos los presupuestos? Al final del año pedimos a los servicios técnicos que hagan una previsión de los ingresos y de los gastos fijos, y tratamos de adecuar los gastos a la previsión de ingresos. Y luego, como se hace en cualquier otra entidad pública, si hay remanente se va dando respuesta a las nuevas necesidades que surgen a lo largo del año con cargo a dicho remanente.

Rafa pregunta si los recursos provienen del remanente.

Aclarada la pregunta, Josu le responde que en esta modificación en concreto sí vienen del remanente.

Rafa Bernal: Entonces, tenemos un presupuesto de unos 5.000.000, al cual se ha añadido un 10% del remanente, y es un monto importante .¿Cuándo surge la idea de utilizar este remanente?

Josu Ezkurdia: Todas y cada uno de los proyectos, y en consecuencia las partidas, que aparecen aquí han sido trabajadas y planteadas en diferentes comisiones.

Rafa Bernal: Pero, esto supone más dinero en inversión que la contemplada en el propio presupuesto. La duda que me surge es ante el hecho de que cuando estamos debatiendo el presupuesto parece que no hay dinero y andamos pensando y debatiendo que puede incluirse y que no, y luego parece que viene la “paga extra”, es como un “sobre-presupuesto”, y esa paga extra viene a ser un ciento y pico por ciento más que el dinero con el que podemos empezar a hablar o a discutir proyectos cuando tramitamos el presupuesto. Por eso digo que a mí me gustaría saber cuándo se empieza a contemplar esto, esto es, si cuando empezamos a trabajar con el presupuesto allí por setiembre u octubre ya se tenía en cuenta todos esto. A mí me da la sensación de que aquí hay una serie de cosas que no son imprevistos, que ya estaban en una especie de plano-proyecto. Por eso pregunto cuándo se empieza a pensar en gastar el remanente para estos gastos, si fue en enero, si fue en febrero, en junio o cuando empezamos a hablar de presupuesto.

Josu Ezkurdia: Creo que ha habido dos cuestiones. La primera es comentar que para nosotros es una buena noticia el poder gastar el dinero en inversiones y no sólo en gasto corriente. Y eso que vaya por delante, medio millón no, mejor si pudieramos gastar un millón de euros para Eskoriatza. Nosotros siempre hemos dicho que las inversiones y el dinero que se destina a subvenciones y a actividades son las que hacen pueblo, lo que en euskera decimos “herrigintza”. Eso por un lado, y por otro, has preguntado cuándo ha surgido esto. Pues depende, por ejemplo el de los servicios públicos de Torrebaso hará hace dos meses, el dinero destinado para el alumbrado público tras una inspección que se ha llevado a cabo, y esas porque son las más importantes, y en cuanto al resto, pues se han ido tratando y aprobando en cada una de las correspondientes comisiones. Esto es, cuando se ha visto la necesidad y la oportunidad de poder llevar a cabo algo, pues se plantea.

Rafa Bernal insiste en que tiene la sensación de que en el momento de debatirse el presupuesto parece que no hay dinero para algunos proyectos y luego resulta que sí, y ante ello pide que en el siguiente presupuesto las propuesta que no se aprueban no lo sean con la excusa de que no hay dinero.

Josu Ezkurdia le responde que aquí lo importe no es el dinero, sino el proyecto en sí, y que su grupo siempre está en disposición y abierto a negociar y a debatir proyectos que sean de interés.

Aitor Zubizarreta, tras insistir sobre el relativo valor de los presupuestos, plantea que en el momento de liquidarse el presupuesto y empezar a utilizar el remanente se podrían recuperar todos aquellos proyectos que en el momento de aprobarse el presupuesto no se contemplaron por falta de recursos.

Josu Ezkurdia insiste en que están totalmente dispuestos a hablar y a negociar , y que de hecho con los técnicos ya se acuerdan propuestas que no se meten en el presupuesto inicial pero que luego se incluyen con cargo al remanente.

El Alcalde pregunta si se ha echado para atrás alguna propuesta que se ha planteado tras la aprobación del presupuesto.

Rafa Bernal responde que en su caso se ha limitado a hacer propuestas en el momento de debatirse los presupuestos, y finaliza su intervención recordando que el inicio del debate ha sido motivado por la cuantía de la modificación.

6.- RATIFICACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN PARA HACER USO DE LA VIVIENDA DE EMERGENCIA SOCIAL.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Ratificar la autorización provisional concedida a ABDELHAK MAHMOUDI y CHAKIB GDIR para que hagan uso temporal del piso de emergencias social de conformidad con las condiciones expresada en el contrato formalizado con fecha 7 de junio de 2018.

7.- MOCIÓN PRESENTADA A INSTANCIA DE ESKORIATZAKO EH BILDU EN RELACIÓN AL CASO DE IRUÑA-VELEIA.

Concedida la palabra, Aitor Zubizarreta da lectura al texto de la moción que su grupo presenta al Pleno para su aprobación, y cuyo tenor literal es el que sigue:

ESKORIATZAKO EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Iruña-Veleia auzia dela eta, Eskoriatzako Udal Batzak honako adierazten du:

** Aipatu auzia bederatziz urtez egon da instrukzio fasean, Euskadin irekita dagoen auzi judizial zaharrena delarik. Bertan implikatu gisa gure herritarra den Oscar Escribano, aurkitzen da.*

** Eskoriatzako Udal Batzak bere kezka agertzeaz gain eta giza arrazoiengatik hau eskatzen du:*

5. *Auzia lehen bai lehen argitu dadila.*
6. *Auzia egoki argitua izan dadin egin daitezela, erakunde edota arkeologo independienteak erabiliz, egin beharreko frogak zientifiko guztiak. Horrela, soilik, benetako justizia berma daiteke.*
7. *Eskoriatzako Udal Batzak bat egiten du Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko hainbat euskal herritarrek egin duten manifestuan eskatzen denarekin:*
 - piezen lagin bat Arkeometrian adituak diren Europako laborategietan aztertzea. Gure ustez, hiru laborategi ezberdinetan egin beharko lirateke analisiak, kasu berezietako protokolo zorrotzak ezarriz.*
 - parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek indusketa kontrolatuak egin ditzatela Lurmenek grafitoen agerlekutzat seinalaturiko lekuengurueta.*

8. *Akordio honen berri Arabako Foru Aldundiari ematea*

Con la abstención del 5 concejales (1 EEE y 4 de EAJ-PNV 1) y el voto favorable de los 5 concejales restantes (1 de IRABAIZI y 4 de EH BILDU) , la moción es aprobada.

EXPLICACIÓN DE VOTO:

Josu Ezkurdia dice que entiende la preocupación o miedo que hay en torno a este asunto, pero que, partiendo que está muy relacionado con uno de los tesoros de nuestro pueblo, el euskera, y sobre el que tienen muy poca información y por consiguiente muchas dudas, es por lo que se van a abstener. Además, añade, como tampoco quieren obstaculizar el asunto con un voto negativo, es por lo que también se van a abstener para que la moción se apruebe y siga adelante.

Rafa Bernal se manifiesta a favor de la moción alegando que en el fondo lo que se pide es aclarar dudas de cuestión científica con análisis y pruebas pertinentes, que a su entender es lo lógico, no entendiendo porque no se hizo eso en un principio sin tener que llegar a la situación actual.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS

8.1.- Aitor Zubizarreta, tras manifestar que de los refugiados rescatados por el “Aquarius” nueve serán acogidos en el País Vasco, pregunta si se ha tenido alguna comunicación o petición oficial en el Ayuntamiento.

Se le responde que no ha habido ninguna petición, que la vivienda cedida a la Cruz Roja para la acogida de refugiados ya está ocupada con dos familias, y que el motivo puede ser ese.

8.2.- Invitación a actos organizados con motivo de las fiestas patronales.

El alcalde informa que mañana, a las 18:00 horas, se realizará un acto en homenaje a la Ikerriña y que a las 19:00 horas será el chupinazo de las fiestas. Invita a todos los presentes a asistir a los mismos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.